



Giro ederrean igaro ziren hitzordu guztiak, eguraldia lagun

2015eko ekainaren 5a, 443 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

GAZTE FESTAK URNIETAN

Garagardo azokaren edizio berria Andoainen, ekainaren 11tik 14ra

Datorren ostegunean arratsaldeko 18:00etan irekiko dute Garagardo azoka, Arrate inguruan.

Aurreko urteetako joerari eutsi eta beste urte batez garagardo berezietan eta garagardotegietako menuaz gozatzeko aukera izango da Andoainen. Datorren asteko ostegunean hasi eta igandera zabalik izango da Arrate pilotalekuaren kanpoaldean. Antolatzaileek aurreratu dutenez, "garagardo bikaina eskainiko dugu eta ukondo eta saltxitxa goxoak dastatzeko aukera izango da. Haurrentzat menu berezia ere eskainiko dugu".

Udaren eta San Juan jaien atarian, hitzordu interesgarria da Ontzerri antolatu duena.



"Garagardo bikaina eskainiko dugu eta ukondo eta saltxitxa goxoak dastatzeko aukera izango da. Haurrentzat menu berezia ere eskainiko dugu".

Garagardo azokarekin batera, aipagarri dira antolatu dituzten hainbat hitzordu osagarri. Ostegunean bertan arratsaldeko 19:30ean hasita pilota desafioa egingo dute Arrate pilotalekuan. Alde batetik Jon Eskudero eskuz arituko da, eta

aurrez aurre izango ditu Alaine eta Elixane Jauregi palaz.

Ostiral iluntzean maila handiko palistak arituko dira Arraten. 20:30ean hasita, Iturzaeta memorialaren finalurrekoak jokatuko dira.

Larunbat eguerdian Ontzerri

futbol taldeko kideek denboraldi amaierako bazkaria egingo dute. Arratsaldean zestean arituko dira Arrate pilotalekuan. 16:00etan gazteen mailako zesta kiniela jokatu da, eta 18:00etan afizionatu mailakoena.

Larunbat gauean garagardo azokatik gertu, Andoingo Rock Jaialdiaren edizio berria ospatuko da. Udalak antolatuta, maila handiko taldeak igoko dira Nafarroa plazako taula gainera: Flamin' Groovies, The Muffs, Johnny Casino & The Secrets, Lie Detectors eta Juarez.

Igande goizean Berria txapelketako final aurrekoak jokatuko dira. Herriarteko sistema berbera erabiliz, baina partida bakarrera, aurrez aurre arituko dira Andoingo Gazteleku eta Usurbilgo Pagazpe.

Nagoreren agurra



Bera Berako jokalaria esku-baloia uztea erabaki du. Ederki kosta zaio erabaki hori hartzea, baina ez omen du eduki beste erremediorik izan. Donostiako taldearekin Espainiako ligako txapeldun hirugarren aldiz bihurtu berrian, eta 23 urte betetzeko atarian dela, Aritzagak Aiurriekin hitz egin du.

Behin betikoa al da erabakia?

Nagore Aritzaga: Bai. Kostatzen da, baina ez dut beste biderik ikusi. Ez nuen uste horren goiz gertatu behar zuenik, baina hala etorri da. Pena izugarria ematen dit, baina ez naiz damutzen erabakiarekin. Taldeko agintariak urtebeteko kontratuaren luzapena eskaini didate, baina berehala ulertu dituzte nire arrazoak. Etxekoak ere bat egin dute nire erabakiarekin.

Zer dela eta agurra?

N.A.: Bera Beran hasi nintzean banekien gogorra egingo zitzaidala ikasketak eta lana bateragarri egitea. Ahalgindu naiz, eta sakrifikatuz nahiko ondo atera zait orain arte, baina jada erizaintzako ikasketak amaituta, zailagoa, ezinezkoa egin zait kirolarekin jarraitzea.

[KIROLA, 11.ORRIALDEA]

Elkartasunari keinuka Gazte Festetan



Pausokaren aldeko futbol txapelketa ezberdina jokatu zen Egapeko jolastokian.



Super H gogoan duen kolorez beteriko murala margotu zuten larunbat arratsaldean.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetzako aurrekontuak
2.000.000 € Buruntzaldea hobetzeko

150 proposamen } Eskualdeko batzarrean erabakiko duzue zeintzuk egingo duten aurrera

HERNANI, EKAINAK 9, 19:00etan, Gabriel Zelaia zentroan (Florida auzoa, 28)

Zure esku dago!

Gipuzkoa

GAZTE FESTAK 2015

Elkartasunak toki nabarmena izan zuen Gazte Festetan

Super H taldeak kolorez bete zuen larunbat arratsaldea, eta kolore horiek iraun egingo dute Azkorte plazako haur parkean. Herrikide ugari parte hartu zuen ekimenean eta hori eskertu nahi dute.

Pausokakoentzat “polita eta aberasgarria” izan zen futbol txapelketa, aniztasun funtzionala duten pertsonengandik gertuago sentitze-ko baliagarria. Herrikideen babes eskertu nahi izan dute.



Elkartea ezagutzera ematea helburu izatearekin batera, haur parkea kolorez bete dute.



Pausoka elkartearen alde, Poxta Zaharrek futbol patida berezien antolakuntzan laguntza eskaini zuen.



Muralaren osaketan haurrek eta helduek modu berean hartu zuten parte.



Begiak itxita futbolean aritu ziren hainbat lagun Egape ikastolan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

On Bosko banda

Igande honetan, On Bosko bandak, Salesiar ikastetxeke musika banda berriak kontzertua eskainiko du San Juan plazan eguerdiko 13:00etan hasita. Kide berriak hartzerira irekita daude bandako kideak: “Musika taldea guztiz irekita dagoela gogoratzen dugu, nahi duen pertsonak parte har dezakeela argi dago: musikarako jarrera eskatzen da, soilik”.

Musikabiko ikasleen kantu emanaldia Saroben

Udal musika eskolako ikasleak ikasturte amaierako emanaldiak eskaintzen ari dira egun hauetan. Azken hitzorduak Agenda atalean ikusgai daude.

Kontzertu horien artean, ostiral honetan “Ahotsarekin Bidaizten” izeneko kantu emanaldia eskainiko dute Musikabiko kantuko ikasleek.

Pianoan Ana Belen Garcia arituko da.

Ekainak 5, ostirala.

Sarobe, 20:00.

Zuzendaria: Iñaki Carcamo.
Kantuko irakaslea: Javi Santacana.

Kantutegia: Michael Jackson, Stevie Wonder, Elton John, R. Schönberg, Lourdes Iriondo, Imanol Larzabal, Xabier Lete, Ken zazpi, Britney Spears, Cristina Aguilera, J. Brahms, W. A. Mozart, G. F. Haendel.

GAZTE FESTAK 2015

Buruhandiek eman zioten hasiera jaiari

Ostiral iluntzean jaien hasierako suziria Buruhandien esku utzi zuten Udal agintariek. Ospakizunak eguraldi ederrarekin igaro dira, asteburu osoan zehar.

Poxta Zahar gazte elkarteak larunbat honetan amaiera emango die ospakizunei, paella lehiaketarekin. San Juan plazara deituta daude herritarrak, arratsaldeko 14:00etan hasita.



Agintariek aurtan Buruhandien esku utzi zuten jaien hasierako suziria botatzea.



Kalejiran ibili eta gero, plazara hurbildu ziren Bosko Anitz txarangako kideak erraldoiekin batera.



Artisautza azoka antolatu zuten San Juan plazan, larunbat arratsaldean.



Txupinazoa amaituta, Egape dantza taldeko kideek saioa eskaini zuten jendez inguratuta zegoen plazan.



Postu ugari eta ezberdinak ipini zituzten artisautza azokan.



Urnieta dantzan egunaren amaiera aldera, herritarrak izan ziren plazara dantzara irten zirenak.

- Argazkiak, bideoak eta kronikak ikusgai www.aiurri.eus webgunean
- Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak

GAZTE FESTAK 2015

400. urteurreneko ospakizunak abiatu dira

Uztailaren 12an Urnietak herri izaera lortu zuela 400 urte beteko dira. Ospakizun bilakatuko den egun hori iritsi aurretik, efemeridea musika eta dantzarekin gogoan izan zuten.

Txanbolin taldeak emanaldi berezia eskaini zuen igande eguerdian. Jarraian, Egape ikastolako 10-14 urte bitarteko gaztetxoek dantza soka eskaini zuten.

Gazteen dantza soka aurtengo jaietako berrikuntzetako bat izan da. Juxto Egañak taula gainetik dantzaren eta dantzarien aurkezpena egin zuen: "Izen asko ditu: Dantza soka, karrika dantza, gizon dantza, esku dantza, alkatte dantza... horrek esan nahi du herri askotan eta urte askotan egin den dantza dela. Urnietan ere egiten zen, baina gero desagertu egin zen. Duela zazpi urte berreskuratzen genuen Urnietan, Egaperen eskutik. Biribil bat osatzen da eta biribil hori ordulariaren alderantzizko norabidean". Hamar eta hamalau urteko gaztetxoek eguzkipean eskaini zuten saioa, ikusleek txalo zaparradarekin erantzuten zutena.



Igande eguerdian mendeurreneko emanaldi berezia eskaini zuen Txanbolin taldeak. Segidan, dantza sokari hasiera eman zioten.



Biribilgune bat osatu eta plaza osoa hartu zuten dantzari gazteek.




Egape ikastolako 10-14 urte arteko gazteek parte hartu zuten dantza sokan.



Ordulariaren aurkako norabidean egiten da dantza.



Eguzkipean dantza egin zuten. Ikusleek tarteka txalo zaparradarekin erantzuten zuten.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Hauteskunde ondorengo galdera: Eta orain?

Azken zutabeen, duela hamabost egun, hauteskunde hauetako ezaugarritako bati buruz aritu nintzen, alegia, aldaketari buruz. Eta, adierazita zegoenez, aldaketa etorri da eta ez txikia. Jakina, hirietan gehiago nabari izan da baina hauetako zenbaitetan ere aldaketa eman, eman da. Adibidez, EH Bilduk zituen zenbait udal EAJren edo PSEren eskuira joan dira. Dudarik ez, ordea, aldaketa, batik bat, estatu mailan, hiri handietan eman dela, hala nola, Madrilan, Bartzelonan, Valentzian... Nafarroan, galanta gainera!

Erkidegoan aldaketa EAJ eta EH Bilduren artean eman da, eta, hemen azpimarratzen, Aldundian Podemos indartsu sartu dela. Donostiako udaletxean ez hainbeste, baina Irabazik bi sartu ditu eta ez dago batera gaizki.

EMAITZAK

Aipatu dudanez, emaitzak desberdinak izan dira autonomien arabera, eta, nola ez, herrien arabera. Gureari dagokionez, lehen ere esan dut giza marea hori ez da hain indartsu sartu, baina, tira Aldundian Podemos-eko sei batzarkide sartu dira. Hasteko ez dago gaizki.

Beraz, ez dugu shock handirik izan Euskal Herrian. Bero, baieztapen hori ez da zuzen-zuzena EAJ eta Bilduren arteko politika forman zein edukian ez baitira berdinak. Analista gehienek, eta ni ere ados nago, EAJk eta PSEk akordioa jada izenpetua dutela, baina bidean gora beheak, eta ez txikiak, izanen dituztela. Nire irudiko, zenbaitetan sozialistak hurbilago egon daitezke Bildu eta Podemosengandik, hor ikusten baitut ezkerren gunea.

Baina, egia da, bestalde, sozialistekin ezin daitekeela asmatu. Esaterako, Legebiltzarrean etxebizitzaren legea dela eta sozialistek eta Bilduk bat egin dute EAJ-PNV eta PPen kontra. Eta nik, lege hori ezkerrean kokatzen dut. Baina, tira, Markelek izango ditu nahiko lanak Bidegi eta errauskailua bideratzen. Errauskailuari buruz zera: niri gustatuko litzaidake herri galdeketa bat behin betiko ea herritarrek zer nola pentsatzen dugun jakiteko. Aurreko Gobernuari inposatzaile izana leporatu diote, ea oraingoek konpontzen duten eta demokratagoak agertzen diren. Beste puntu bat erabakitze eskubidea, subiranotasuna izango da. Podemosek garbi esan du erabakitze eskubidea dela, beraz demokratikoa, eta ez dela beraien lehentasuna. Baina ez direla oztopo izango. Gai hori dela eta, ez nau harritu ERCKo Junquerak irratian esan duena: Ada Colauri bozka emateko honek independentziaren alde agertu beharko duela. Zertan gabilta: erabakitze eskubidea independentzia al da? Noiztik? Erabakitze eskubidean independentzia beste aukera askoren artean egon daiteke, baina ez berdindu erabakitzeko eskubidea eta independentzia. Ez dut ulertzen!!

ITUNAK

Bertatik hasita, Urnieta eta Andoaingo emaitzak eta ondorengo analisiak lehengo asteke Aiurrin Jon Ander Ubedak argi baino argiago agertu dizkigu.

Urnieta eta Andoain herri desberdinak dira, beti izan dira. Agian Urnietan harri-garria izan da Bilduk gehiago ez lortzea eta EAJ eta Bilduren arteko aldia areagotzea. Baina, hori Gipuzkoako herri askotan gertatu da eta Urnietara ez da, dirudienek, ezke-

Andoainen ezker multzoa badago eta hori bizigarria da, egoera ez baita Urnietan bezain lineala

rreko giza marea hori iritsi, esan nahi baita beste zenbait herritan sartu diren mugimendu berri horiek Urnieta alde batera geratu direla. Beraz, UrnietaN ez dute itun beharrik. Mikel Pagolaren adierazpenak alegia, oposizio inplikatu nahi duela, jarrerara heldua eta jatorra deritzot, herria eraikitze elkarlan hori berme bat da.

Andoaingoa konplikatua goa ikusten dut, baina Ubedak dioen bezala, badirudi Andoainen ezker multzoa badagoela eta hori bizigarria da, egoera ez baita Urnietan bezain lineala. Nork jakin, agian, egunen batean.

Dena den, txarrenera, Carrerek eta beste bi indar berri horietako ordezkariak oposizioa egin dezakete.

Nafarroakoa itxaropentsua ikusten dut, eta Uxuerengan denok dugu itxaropena. Eta Madrilan eta Bartzelonan, Valentzian eta hainbat lekutan zer gertatuko den jakin arte urduri gaude. Estatu mailan giza marea hori indarrez sartu da. Ea PSOEek zer nolako joera hartzen duen. Ea inoren aurka jo gabe alternatiba ezkerriarrak sortzeko gai diren.

Ai Carmena Carmena!!! eta Ada eta Valentziako Compromisoko emakume sutsu hori. Emakumeek eman diezaiokete kutsu berri bat politikari.

Dena den, eta bukatzeko, paktuak paktu eta emaitzak emaitz, bizitzak aurrera egiten du eta guk geuk kudeatu beharko dugu geure bizitza. Politikoei lagun diezagukete baina, azken batean, bizitzan orekan bizitzeko aukera geuk sortu eta eraiki beharko dugu. Hori segurua.

Errepide mozketak igandean

Igande honetan arratsaldeko 15:00etatik 18:00etara errepide mozketak izango dira Idiazabal kalean, Zaldundegi eta XauXar tabernen artean.

Orduetegi horretan herrian bus geltoki bakarra izango da: Idiazabal kalean, Andoaingo norantzan, anbulategi zaharraren aurreko biribiltzean.



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Herri mina (IX)

Guk aurkitu genituen euskaldunek egin ziguten harrera ez zen izan txantxetako. Haien oroitzapena gure txiki denboretan bizi izandakoa zen, baina hau ere aldatu egin da. Joxek behin esan zidan nahi duena egiteko lain izango balu, etxea Etxegarate gainean egingo zukeela, karretera etxeraino eduki zezala. Etxalariko Emiliok ere zer miresmena bere herriagatik, zenbat helbide eman zizkiguten bere jatorriaren azarnak bilatzeko.

Horiek denak gogoan izanik, neure buruari zin egin nion bideak erraztu behar nizkiela bere Segurako senideei Ucachara etor zitezen eta neri egin zidatena bere etxeko senideei egin ziezaieten. Zazpi senide ziren. Seguran bizi ziren bigarrena, Mariano, eta gazteena, Joxe Mari. Etxera itzuli nintzenez, berotu nintzen ordurako, nik utzi eta sei hilabetera, hil zen Bitoriano zaharrera, Renéren ezkondata zegoena eta bi alaba eta semea zituena. Paper denak egingo nizkiela eta udako oporretan, abuztuan, joateko plana egin nien. Hala ere, oraingorik ere dudak zituzten eta neuk lagunduko niela esan nien; eta ni egon eta bi urtera, Mariano eta andrearekin, eta horren anaia eta andrearekin,

prestatu ginen bisita garrantzitsua egitera.

Ezeiza aireportura iritsi ginenean, Leoni aitatu nion bere anaia berri, nola hil zen eta abar, eta hor jarri zitzaidan negar malkoz blai, eta orduan pentsatu nuen: "ordu ona aukeratu degu etortzeko..."

Pentsa dezakezue nolako harrerara egin ziguten. Bertako apaiza gaixotu egin zitzaigun eta neri eskatu ordezkari egingo ote nuen. Eta nik nola ez bada! Ordurako herrian zeukaten etxea hartuta eta kanpoan nahi nuen, baina herrian egon behar izan nuen. Hiletak eta egin behar izan nituen eta gauza hauxe gertatu zitzaidan: lehendabizikoan ezin harrera hobe egin zigun autobusetako enkargatua hil zela eta hiletan esan omen nuen hau: "gizon hau zen herriaren izenean ongi etorria egin zigun lehendabiziko eta orain neri dagokit berri agur egitea". Joxek esan zidan bere emazte-alargunak ikusten zuen bakoitzean sermoi hura gogorarazten ziola.

Egun gogoangarriak izan ziren anaiak elkarrekin egotea, "los hermanos Elorza" zein ospetsuak eta maiteak ziren jakitea. Handik betirako atea ireki zuten segurarrek Ucacharekin. Orain, ilobek-eta ezkonberrietako bidaia hara izaten dute. Ameriketakoek denek, familia osoak, joan-etorri bat edo beste egin dute Segurara. Neronek hirugarren bidaia ere egin nuen urnietarrekin: Jesus Ubiillos eta M^a Jesus, eta Eduardo Atxaga eta Pepi; joan-etorri miresgarria eta bete; baina hau beste baterako uzten det...

Ameriketako euskaldunekin erabat lotuta nago, nola ez, hain onartua izanda gero.

Jaxinto, ikastolen lemazain

(Hiazinto Fernandorena Setien)

Liburua salgai Aiurrin.

12€



Babesle



IKASTURTEAREN AMAIERA

Ikastetxeen ikasturte amaiera, albistez beteta

Ikasturtea amaitzear dagoen honetan, azken proiektuak eta balorazioak egiten ibili dira aste hauetan bertako ikasle zein irakasleak. Andoingo Aita Larramendi Ikastolan, Ondarretan eta La Salle Be-

rozpen, hainbat proiektu eraman dituzte aurrera: Nazioartetik ikasleak etorri dira hona, elkartasun ekimenak burutu dira eta kanpotik izendapen esanguratsuak iritsi dira.

EUROPAKO IKASLEAK ANDOAINEN

“Comenius” ekimeran baitan, Irlanda, Alemania, Belgika, Polonia, Eslovakia, Eslovenia eta Hungariako 60 ikasle eta 21 irakasle Aita Larramendi Ikastolan izan ziren maiatzean bost egunez. Ikastolako ikasleen etxeetan hartu zuten ostatu, eta bai andoaindarrentzat bai atzeritarrentzat, esperientzia bikaina izan zela azaldu dute ikastetxeko kideek.

Lankidetzan eta elkartrukean oinarritutako hainbat ekintza egin zituzten. Esate baterako, eguzki energia erabiltzen duten kotxeen lasterketa egin zuten eta saguak harrapatzeko tramankuluak erabiliz, kotxe bat mugitzen ere ahalegindu ziren ikasle taldeak. Ekintza horien artean, herri kirol erakustaldiak egin zituzten: sokatira, esku pilota, txingak, lokotxa bilketa... Aitor Iriondo zuzendariak azaldu zuenez, herri kirolean atzeritarrak ikustea oso gauza “kuri osoa” izan zen.

Ikastolako ekintzez gain, hamaika ekintza egin zituzten. Egonaldiaren lehen egunean atzeritik etorritako ikasleei Andoingo udaletxean harrera ekitaldia egin zieten, eta ondorengo egunetan, Andoingo inguruez gain, Donostia, Getaria eta Zumaia ere bisitatu zituzten.

“Ikasleak hartu dituzten familiak oso gustura egon dira eta irakasleek ere oso ondo baloratu dute proiektua”, adierazi du Aitor Iriondo zuzendariak. Gurasoei “oso positiboa” iruditzen zaie euren seme-alabak ingelesez hizketan ikustea. Aurtengo amaituta, hurrengo ikasturteko truke proiektuetan buru-belarri murgilduta dago jadanik Ikastola.

MINBIZIA DUTEN HAURREI LAGUNTZA EMAN DIE LA SALLEK

La Salle Berrozpeko erdi mailako zikloak egiten dituzten ikasle talde baten eta hauen irakasleen laguntzaren eskutik, elkartasun proiektu bat abian jarri zuten ikasturte hasieran, bildu-



Herri kirol erakustaldiak egin zituzten atzeritarrentzat: sokatira, esku pilota, txingak eta lokotxa bilketa.

“Comenius” ekimeran baitan Irlanda, Alemania, Belgika, Polonia, Eslovakia, Eslovenia eta Hungariako 60 ikasle eta 21 irakasle izan dira Andoainen

tako latak prentsaturaz eta txartegi bati salduz lortutako dirua minbizia duten haurrei emateko asmoz.

Lagundu Laguntzen izeneko proiektu honetan, bidelagun izan dituzte latak eman dizkieten ikastetxe edota erakundeak. Izan ere, proiektuak herri-tarren elkartasuna eskatu die; Gipuzkoako La Salle Berrozpeko ikastetxe desberdinetan eta beste zenbait erakundetan (Real Sociedad, Urbil, Hernaniko Gizakia Helburu...) latak biltzeko edukiontzia jarri baitzituzten.

Ekimen honetatik lortu den diru guztia Gipuzkoako Minbizidun Haurren Guraso Elkartearentzako izan da, minbizia duten haurrek ospitalean egiten duten denboraldia eramangarriago egiteko. Hala, maiatzaren 17an, Andoaindik Donos-

tiara ibilaldi bat egin eta elkar-teari zenbait material eman zioten, DVDak eta elkartasun jokoak, besteak beste.

ALDAKETAK ERAGITEKO ABILEZIA AITORTU DIOTE ONDARRETARI

Ondarretari mundu mailako “Changemaker” izendapena eman dio Ashoka fundazioak. Fundazio hau pertsona, erakunde edo gizarte bezala arra-

kasta lortzeaz eta aldaketak eragiteaz arduratzen den sarea da. Ashokaren oinarria egun gertatzen diren aldaketetara egokitzean eta egungo erronkei irtenbideak bilatzean datza. Hori horrela izanik, “changemaker” edo euskaraz esanda, aldaketa-egileak izendatu ditu munduan zehar. 120 ikastetxe aukeratu ditu “changemaker school” izateko eta horien arte-

“Ondarreta ikastetxeari mundu mailako ‘Changemaker’ izendapena eman dio Ashoka fundazioak”

an daude Amara Berri sareko eskolak.

Amara Berriko hezkuntza sistemak ikasleak aldaketa-agentek izateko ahalbidetzeagatik eman diote izendapena. Sistema hori 19 zentrotan lantzen dute; horien artean, Andoingo Ondarreta ikastetxean. Ikastetxetik adierazi dutenez, adin nahasketa lagungarria da; bate-tik, bizitzaren hainbat momentutan “txikia izaten” eta laguntza bila ibiltzen direlako, eta bestetik, “handia izaten” eta laguntza eskaintzeko aukera ematen duelako.

Horrez gain, ikasgaiak testuinguru bidez lantzen dira. Hau da, bizitza erreala geletara sartzen da; elkarrekin erlazioz aritzen dituen testuinguruak diseinatzen dituztelako eta jolas eta esperientzia praktikoren bidez ikasten dutelako. Gainera, eskola publikoa, irekia eta ikasleria anitzekoa dela adierazi dute, “desberdintasuna ezaugarritzat” jotzen dutelarik.



Lagundu Laguntzen izeneko proiektu honetan, bidelagun izan dituzte latak eman dizkieten ikastetxe edota erakundeak.

ANDOAIN #M24

Udal hauteskundeak
Batzar Nagusiak

M24

Andoaingo datuak zehatz-mehatz

Sek.	EH BILDU			PSE-EE			EAJ-PNV			PP			IRABAZI			GANEMOS
	2015	2011	Aldea	2015	2011	Aldea	2015	2011	Aldea	2015	2011	Aldea	2015	2011	Aldea	2015
	2112	2500	-388	1887	2059	-172	1750	1363	387	289	561	-272	442	369	73	555
1	195	229	-34	140	160	-20	222	174	48	22	48	-26	40	18	22	35
2	385	411	-26	121	131	-10	216	180	36	22	42	-20	62	49	13	66
3	302	294	8	203	195	8	157	123	34	21	47	-26	65	70	-5	97
4	139	183	-44	115	167	-52	127	76	51	13	27	-14	34	18	16	33
5	86	145	-59	283	267	16	123	100	23	25	56	-31	46	32	14	46
6	127	143	-16	203	236	-33	140	94	46	24	54	-30	33	30	3	41
7	140	170	-30	200	246	-46	181	131	50	22	48	-26	28	23	5	46
8	174	222	-48	81	101	-20	138	119	19	22	40	-18	43	34	9	54
9	188	238	-50	123	111	12	115	104	11	33	54	-21	29	30	-1	27
10	188	217	-29	171	204	-33	159	116	43	33	49	-16	22	26	-4	47
11	188	248	-60	247	241	6	172	146	26	52	96	-44	40	39	1	63

SEKZIO BAKOITZAREN EREMUA

Sekzioa 1. Bozkatuena: EAJ-PNV.

Eskola 2-8, Goikoplaza 9, J.B. Erro 2-8, Kaleberria 1-4, Kale Nagusia 1-59, Kaletxiki 5-19 / 2-30 eta Lasalle 1-3.

Sekzioa 2. Bozkatuena: EH BILDU.

Aingurasutegi 3-7, Berria 3-15 / 6-50, Leitzarain 2-10, Kale Nagusia atzek. Zumea 1-23 / 2-36, Belabi 2-8, Txitibar pl. 1-4 eta Zumea pl. 1-9 / 2-8

Sekzioa 3. Bozkatuena: EH BILDU.

Aingurasutegi 12, Belabi 1-11/10, Etxeberrieta pl. 1-5/2-6, A.Larramendi Atzek. 1-3/2-8, A.Larramendi 1-31/2-32,

Algodonerako Emakumeen plaza 1-7/2-8, Dña. Carmen 1/2, Txitibar plaza. 3/2, Txitibar k/ 1/12, P.Etxeberria k. 1/2, Pedro Manuel Ugartemendia kalea 1-3, Z. Ansa k 1/2 eta Martin Ugalde kalea 2/4.

Sekzioa 4. Bozkatuena: EH BILDU.

Belkoain 2A-4, Dr. Huizi 1-19B/2-28, Gernika 2-10, Kale Nagusia 4B, Ondarreta 1-9/2A-12 eta Zuberoa 2-8.

Sekzioa 5. Bozkatuena: PSE-EE.

Arrate kalea 1-9/2-10, Elizondo plaza 1-7/2-6, Nafarroa plaza 1A-5/2-4, Pio Baroja 1A-5, R.Arregi kalea 2-4.

Sekzioa 6. Bozkatuena: PSE-EE.

Alejandro Calonge, Ama Kandida eta Bazkardo plaza 1-11/2-12, Bazkardo auzunea 1-3/2 eta Rikardo Arregi kalea z/g 7-12/6-20.

Sekzioa 7. Bozkatuena: PSE-EE.

Alkartasuna kalea 1-3/2-6, Extremadura kalea 11-15/8A-14, Galardi kalea 7/10-12, Plazaola kalea 1-47/2-14 eta La Salle etorbidea 6-14.

Sekzioa 8. Bozkatuena: EH BILDU.

Leizotz auzunea, Buruntza auzunea, Lizarkola, Gudarien Etorbidea eta Manuel Lekuona plaza.

Sekzioa 9. Bozkatuena: EH BILDU.

Aiztondo, Karrika, Gurmendi, Goiburu, Sorabilla eta Errotagain.

Sekzioa 10. Bozkatuena: EH BILDU.

Bertxin 1-7/2 Extremadura 1-9/2A-4B, G. Aresti 1-17/2, Galardi 1-5/2-8, Geltoki auzoa, Joakin Larreta 1A/39, La Salle 5-9/2-4 eta Olagain 1-5/2-6.

Sekzioa 11. Bozkatuena: PSE-EE.

Agustin Leiza atzekaldea eta plaza, Goikoplaza 1-7/2-8 R. Arregi 1-5, Arteta 1-9, Mimendi 1-3/2-26. Doktor Huizi 21-27 eta Kale Nagusia 2-4.

*Datuak: Andoaingo Udala.

BOTOAK, PORTZENTAIK

ZENTSOA

Deialdiz deialdi beheruntz doa:

Urtea Botu-emaileak

2007 11.928

2011 11.832

2015 11.628

PARTE HARTZEA

Ezker abertzalearen legez kanporatzea dela eta, 2003 eta 2007 urteetako bozketetan eragin nabarmena izan zuten. Historikoki, esan daiteke parte hartzea %60an kokatzen dela Andoainean.

Urtea Portzentaia

1995 62,1

1999 63,6

2011 63,4

2015 62,3

ABSTENTZIOA

Parte hartzeari buruz aipatutako arekin lotura zuzena du.

Urtea Portzentaia

1995 37,9

1999 36,4

2011 36,6

2015 37,7

BOTU EMAILEAK

Herriko batz bestekoaren azpitik 4 sekzio agertzen dira.

Sekzioa Portzentaia, galera

3.sekzioa -1,3

4.sekzioa -3,9

8.sekzioa -6,1

9.sekzioa -5,0

EH BILDU %29,1

Datu onena eta okerreana

- %13,7 5 eremua.

+ %42,8 2 eremua.

PSE-EE %26

Datu onena eta okerreana

- %13,4 2 eremua.

+ %45,1 5 eremua.

EAJ-PNV %24,1

Datu onena eta okerreana

- %18 3 eremua.

+ %33 1 eremua.

GANEMOS %7,7

Datu onena eta okerreana

- %5 9 eremua.

+ %11,1 3 eremua.

IRABAZI %6,1

Datu onena eta okerreana

- %3,4 10 eremua.

+ %8,1 8 eremua.

PP %4

Datu onena eta okerreana

- %2,4 3 eremua.

+ %6,6 11 eremua.

Bilerak

EH Bildu izan zen garaile maiatzaren 24ko Udal hauteskundeetan. Astelehenean prentsa ohar bidez adierazi zuenez, Udal gobernu berria osatzeko prest dago. Helburu horrekin bilera sorta egin du PSE-EE, EAJ-PNV, Ganemos eta Irabazi alderdiekin. "Udal sendo eta egonkorra" deitzeko asmoa agertu du: "Hauteskundeetako emaitzen inguruan egiten dugun hausnarketa partekatuko dugu errekin, Udal gobernu berriak beharrezkoa duen egonkortasuna mahai-gainean jartzearekin batera. EH Bildu jarrera baikor batekin agertuko da bilera horietara, jarrera eraikitzaile batekin; eta jarrera bera eskatzen diegu gainerako alderdiei ere".

Abertzaletasuna, bipartidismoa eta ezkerra: joera ezberdinak Andoaingo datuak eskuetan



JON ANDER UBEDA • ANDOAIN

ABERTZALETASUNA

2011ko eta 2015eko emaitzak ikusita, deigarria da EAJ eta Bilduren arteko lotura.

EAJ + BILDU BOTOEN BATURA

2011 3.863 boto

2015 3.862 boto

Abertzaletasunari lotutako bi alderdiek boto kopuru berbera eskuratu dute. Ez da ahaztu behar, bestalde,

2011n Aralar eta Hamaibakat alderdiak ere aurkeztu zirela, 440 boto lortuz.

BI ALDERDIEN GARAPENA

Datuak aletzen hasita:

EH Bildu

2011 2.500 boto

2015 2.112 boto -388 boto

EAJ-PNV

2011 1.363 boto

2015 1.750 boto +387 boto

BI ALDERDIEN JOERA

EH Bildu 2.000 botoetan

2.000 botoko langari eutsidion bakarria da.

1999 2.287 boto

2011 2.500 boto

2015 2.112 boto

EAJ-PNV goruntz doa

Portzentaian eta botoetan goruntz egin duen bakarria da. Egonkortu eta goruntz doala dirudi.

2007 1.186 boto

2011 1.363 boto

2015 1.750 boto

BIPARTIDISMOA

Estatuan PP eta PSOE krisian sartu dira azken urteetan. Andoain ez da irla bat. Joera hori honaino iritsi da:

PSE + PP BOTOEN BATURA

1999 3.034 boto

2015 2.176 boto

PSE-EEren garapena

Galera etengabea da:

2003 2.570 boto

2007 2.362 boto

2011 2.059 boto

2015 1.887 boto

PPren garapena

1999tik honuntz galera handia da, Udal ordezkari-tzarik gabe geratu arte. Beheranzko joera nabarmena da:

1999 810 boto

2011 561 boto

2015 289 boto

EZKERRA

Izquierda Unida-Ezker Batua ezkerreko mugimendu eta alderdien koalizioa botu-emaitzen %5aren inguruan ibili da beti. Ezker abertzalea legez kanporatzean, IU-Aralar elkarrekin aurkeztu zirenean koska bat egin zuten gora, %9ra iritsi arte.

Hauteskunde hauetan IU-ren oinordekotzat har daiteke Irabazi. Emaitza ona lortu dute. Ezkerreko emaitzatan, ordea, ezinbestekoa da Podemosen eragina aipatzea, alderdi berri hori gabe ezin baita Andoaingoa interpretatu.

Irabazi eta Ganemos, bien baturak 997 boto eman ditu. Ezkertiar eta abertzalea ez den ikuspegitik, inoizko datu onenak dira.

EKAINAREN 6TIK 13RA HITZORDU UGARI DEITU DITUZTE

Hogar Extremeñoen kultur astea

Urtero legez, badator Hogar Extremeño elkarteak antolatutako kultur astea. Extremadurako eta Euskal Herriko kulturen arteko nahasketari eman nahi izan diote garrantzia aurtengo egitarauan. El-

karteko bazkide beteranoetako den Juan Moyano eta bere seme Juanfe antolaketa taldean dabilenak, azaldu dituzte egitarauaren nondik norakoak.

Zenbait ekitaldi aurreko urtekoen antzekoak dira. Besteak, berriz, berrikuntzekin datoz...

Juanfe Moyano: Berrikuntzak gogoeta baten ondorioz etorri dira. Antolatzaileoi interesgarria iruditu zaigu, 400. urteurrenaren harira, gaur egun Andoainen dagoen kultur mestizaia jorratzea. Euskaldunak ez diren beste komunitetako pertsonak nola integratu diren Euskal Herrian, euren jatorriko kultura ahaztu gabe hemengo nola jaso duten alegia, horixe islatzea nola edo hala. Izan ere, geure elkartearen, urrutira gabe, aniztasun hori ematen da; bertan biltzen dira Extremaduran jaioak, horien seme-alabak hemen jaioak, eta bilobak bi hizkuntzatan normaltasunik handienarekin bizi direnak. Bigarren eta hirugarren belaunaldiko horiek guraso edo aitona-amonak erdaldunak izango dituzte, baina eurak bi kulturetatik hoberena jasotzera ohitu dira.

Gero eta gehiago gertatzen da aberasgarria den kultur nahasketa, eta ikusi besterik ez dago elkarteko zuzendaritzaren osaketa zein anitza den: lehendakariak aita extremadurarra du eta ama euskalduna, eta aparte, andaluziar bat dago, galiziar bat, euskaldun bat...

Basteroko jaialdian bistaratu nahi genuke kultur mestizaia-aren ideia hori.

Nola osatuko da jaialdia?

Juanfe: Emanaldi ugariarekin gozatzeko aukera izango da. Emakumeen elkartearen Zuek antolatzen dituen ikastaro-etako talde batek eta herriko Triana elkarteak Andaluziako folklorea ordezkatuko dute. Euskal Herriko, Galiziako eta Extremadurako dantza eta abesbatza taldeek ere beren emanaldiak eskainiko dituzte, eta azkenik, Jon Belokik gidatzen duen bertso eskolako gazteek bertso sorta kantatuko dute, euskaraz zein gaztelaniaz.



Juan Moyano eta bere seme Juanfe kultur asteko antolatzaileak.

Esku programan castuo izeneko hizkeran idatzitako poesia irakur daiteke...

Juanfe: Extremadurako nekazariak elkarrekin komunikatzeko erabili izan duten hizkera da, gaztelaniatik gertu dagoena. *Castuo*-a ikasketarik gabekoen hizkera izan da beti, ez elitearena. Gero eta gutxiago hitz egiten da, baina eusten diote zenbaitek oraindik.

Nekazarien kultura aldarrikatzeko asmoz jarri dugu egitaraua, eta merezi du irakurtzea, nahiz eta hitz edo esaldiren bat lehenengoan ulertu ez. Bertan esaten denez, nekazarien kultura lurrari itsatsitakoa da, ez da kultura zientifikoa edo teknikoa, bizitzaren eskarmentutik ikasitako kultura baizik. Bere hiztunek agian ez zuten El Quijote irakurriko, ez dute Goya eta Picasso bereizten jakingo, baina adimen naturala daukate, naturarekin harremanetan bizitzetik sortzen zaiena.

Juan: Hizkera horren kontuekin lotuta, gure elkartearen izena ere gogoratu beharko genuke: Miajon de los Castuos, alegia. Zer esan nahi duen galdetzen digute maiz: bada, gutxi gora-behera, "benetako extremaduratarren esentzia edo mamia" izango litzateke.

Zuri, Juan, gertukoa egingo zazu hizkera hori, Extremaduran jaioa zarenez. Zein izan da zure bizitzako ibilbidea?

Juan: Zaharrei-eta entzun izan diet, bai, hizkera hori, oso zabaldua egon baita.

Nire ibilbidea, beste herrikoen antzekoa da: Sei senide ginen familian, Valle de la Serena herrian (Badajoz). Iraganen gazteak azkarrago egiten ziren heldu, eta jada hamahiru urterekin hasi nintzen lanean. Hamazazpi urterekin Andoainera etorri nintzen, bertan bizi zen txikitako lagun batek lanpostua lortu eta gero. 1962ko abuztuaren 13an izan zen hori, eta Celulosasen hasi nintzen; Michelinera pasa nintzen gero. Quintana herrikoa dut emaztea, eta berehala egokitu ginen Andoaingo bizimodura. Bi seme-alaba ekarri genituen mundura. Ondarretan ikasi zuten biek ere, eta esan daiteke euskara gaztelania bezain berea dutela.

Zer gehiago azpimarra daiteke egitarautik?

Juanfe: Adin ezberdinak asetzeko moduko egitaraua osatu dela esango nuke. Haurrentzako ekitaldi ugari antolatu da (marrazketa eta idazlanen

"Antolatzaileoi interesgarria iruditu zaigu, 400. urteurrenaren harira, gaur egun Andoainen dagoen kultur mestizaia jorratzea"

Juanfe Moyano

lehiaketak, jolasak, txokolate jatea...). Gazteen areto futbol txapelketa hor dago. Helduei begira, Extremaduran nahiz Euskal Herrian ohikoak diren jokoen txapelketak eskainiko dira (mahai jokoak, domino, toka, calva...). Adinez nagusi direnek ere badute egun propioa; kontzientziak zaintzen ditugu, eta oso pozik egoten dira.

Bada hitzaldi interesgarria, Santiagoko bide baten berri eman nahi duena, Ruta de la Plata bezain ezaguna ez den Bide Mozarabearena, hain zuzen. Bidean aditua den Xose Vilaboa izango da hizlaria.

Kultur astearen irekitze ofizialean herriko agintari guztiak eta kultur elkarteak gonbidatzen ditugu eta giro polita sortzen da; ereserkia abesten da, topa egin... Nolanahi ere, pertsonalki, anaitasun bazkaria nabarmenduko nuke; kanpoan bizi direnak eta aspaldi ikusi gabekoak etortzen dira, hitz aspertuetarako eta giza harremanetan sendotzeko astia izaten da.

Gazteak hurbiltzen al dira elkartera?

Juanfe: Bai, jarraitzen du belaunaldien arteko transmisioak, eta gazteak poliki-poliki bazkide egiten dira. Egun, elkarteak ia 200 bazkide izango ditu eta gazteak dira horietako asko. Joan den igandean, konparazio batera, bi gazte koardila arratsalde pasa egon ziren elkartearen sartuta.

Juan: Elkartearen arauak erraztasunak jartzen dituzte gazteak bazkide egin daitezen.

Nolanahi ere, ikusten da

EGITARAUA

Ekainak 6, larunbata

12:30 Kultur astearen irekiera.
17:00 Mahai jokoak.
19:00 Areto futbolak.

Ekainak 7, igandea:

10:00 Calva txapelketa, Kiroldegian.
14:00 Anaitasun bazkaria.

Ekainak 8, astelehena:

18:00 Marrazketa eta idazketa lehiaketa haurrentzat.

Ekainak 9, asteartea:

18:00 Marrazketa eta idazketa lehiaketa adin guztientzat.
20:00 Sardina jatea.

Ekainak 10, asteazkena:

18:30 Zizka-mizkak 65 urtetik gorako pertsonentzat.
19:30 Plaka ematea helduenari.

Ekainak 11, osteguna:

19:00 Santiagoko bide mozarabiaren inguruko mahai-ingurua Basteron.

Ekainak 12, ostirala:

Musika eta dantza jaialdia Basteron. (Gonbidapenak Hogar Extremeño eskatu behar dira).

Ekainak 13, larunbata:

10:00 Toka eta bote txapelketa.
11:00 Areto futboleko finalak.
18:00 Sari emateak eta kultur astearen amaiera.

gazteak nahikoa badutela euren eguneroko ardurekin (ikasketak, familia eta ume txikiak, lana...). Bazkide guztiok, urtero, txandaka-txandaka pasatu beharra daukate zuzendaritzak batzordetik, eta horri esker, gazteak orduan konturatzen dira zer den elkarte bat, zein den bere funtzioa, zenbat kostatzen den gauzak antolatzea... Horri esker elkartearen bizitzan gehixeago inplikatzeko hasten dira.

ANDOAINEN IZAN DIRA ESPETXEAN DAGOEN ANDOAINDARRAREN BIKOTEA ETA SEMEA

Carlos Garciaren sendia Andoainen izan da

Bisitan izan dira 2015eko otsailean Italian atxilotu zuten Carlos Garciaren neska-laguna Carola Gottschers eta bien seme Leon. 16 urteko kartzela zigorra

ezarri zioten Garciari 2000an, eta Espainiara estraditatu izateko arriskuan dago une honetan. Jasotako elkartasunarekin hunkituta itzuli dira Milanera.

Zer moduz Andoainera egin duzuen bisitatxo?

Carola Gottscher: Oso aberasgarria izan da biontzat. Animoz gainezka goaz Milanera!

Andoainen bizi den Carlosen familiarekin egon gara lehenengo eta behin, eta Leonek bere amona eta aitona-ordea ezagutzeko aukera eduki du. Herrian, berriz, egundoko elkartasuna jaso dugu. Jende pila hurbildu zait, Carlosen adiskideak, ezagunak... Topaketarik bereziena, agian, Mikel Goenaga apaizarekin izan dugu; aparteko harremana eduki izan dute beti, eta oraindik gutunak idazten dizkiote elkari.

Agudo joan da egonaldia, eta etorkizunean baliagarri izango zaizkigun hainbat datu jaso eta eskarmentua dutenen pertsonak entzuteko denbora izan dugu. Izan ere, hemengo abokatuekin egon gara batetik, eta bestetik, nirearen antzeko kasuan dauden emakumeei makina bat galdera egin ahal izan diet. Denbora laburrean izugarri ikasita noala iruditzen zait.

Zein egoeratan dago Carlos?

C.G.: Milango presondegian dago. Euskal preso bakarra da Italian, egun. Isolamendu egoeran daukate, eta patiora ordu-betez irten liteke; ezin du inor txo ere ikusi. Familiarren bisitak soilik jaso ditzake, hilean sei eta ordubetekoak. Oso pertsona tinkoa da nortasunez, eta horri esker ondo darama egoera.

Zein egoeratan bizi zineten Milanen atxiloteta gertatu aurretik?

C.G.: Beste edozein famili baten bizimodua geneukan hirurok. Lagunekin, lantokian, kalean..., bizitza normal-normala egiten zuten Carlosek.

Elkartasunik erakutsi al dizue Italian?

C.G.: Adiskideen eta ikastetxe-ko gurasoen babesa jasotzen ari gara. Carlos ezagutzeko pa-



Carola Gottscher eta Leon, Carlos Garciaren Andoaingo familiarekin.

"Carlos Milango presondegian dago. Euskal preso bakarra da Italian, egun. Isolamendu egoeran daukate, eta patiora ordu-betez irten liteke"

Carola Gottscher

rada eduki dutenek, ez diote erreparatzen estatuek erabili ohi duten terminologiari. Badakite ez dela terrorista. Orain arte zenbait elkarretaratze eta antzeko ekitaldiak antolatu izan dira, eta maila politikoan, Italiako ezkerreko bi diputatuk bisita egin diote Carlosi; bere egoerari buruzko txostena osatzen ari dira.

Espainiako gobernuak eskatua dauka estradizioa. Italiako epaileek Carlosekin zer egin noiz erabakiko dute?

C.G.: Ekainaren 23an bi erabaki hartu behar dituzte; batetik, atxilotua dagoen bitartean etxean egon ahal izatea ala ez, eta bestetik, estraditatu ala ez. Terrorismoko delituagatik zigortu

zuten Espainian, banketxe bati su eman izana leporatuta 16 urteko zigorra betetzea exijitzen diote, baina Italian delitu horri sua nahita eragitea deitzen zaio. Abokatuak saiaturiko dira arrazoiak azaltzen, baina aurrekariak ikusita, ez zaigu itxaropen handiegirik geratzen. Estatuaren arteko politikak eta logikak funtzionatzen du, gainerako gogoeta juridikoak eta giza eskubideen ingurukoak baino gehiago.

Zer adierazi dizute hemengo abokatuek?

C.G.: Espainiarren eskuetan uzten baldin badute, errekurtsioa zertan oinarrituko duten azaldu digute. Nahiko apartekoa baita Carlosen kasua. Andoaingo Laboral Kutxako sukurtsalaren erreketan parte hartzea leporatu zioten, baina berak dena ukatu egin zuen hasiera-hasieratik. Auzoko bi lekuko agertu ziren; batek ez zuela ezer ikusi adierazi zuen. Bigarrenak, baina, ibilerengatik txanodunetako bat Carlos izan zitekeela adierazi zien ertzainei.

Epaiketari ordea, ez zuen hasierako deklarazioa berretsi. Angela Murillo zen epailea, eta honek soilik aurreneko deklarazioa hartu zuen kontuan. Sententzian aitortu zuen bildutako frogak ez zirela nahikoak Carlos errudun jotzeko, baina lekukoak ertzainen aurrean adierazitakoan oinarri zitekeela. Abokatuak adierazi digu oso testuinguru jakin batean gertatu zela dena: kale borrokako ekintza ugari gertatu zen, eta sententzia eredarriak eman behar zirela zioen ideia zabaldu zen eremu mediatiko, politiko eta judizialean.

Gaur egun, zorionez, jurisprudentzia sortzen ari da. Poliziaren aurrean egindako deklarazioak jada ez dira lehen bezala kontuan hartzen. Azken aldiaren epaitutakoak absolbitu dituzte, poliziaren aurreko hasierako autoinkulpazioari balio juridikoa kendu zaiolako. Bestalde, bere aurkako frogatan hamaika irregulartasun topatu dituzte. Arrazoi guzti horienengatik, itxaropentsu egoteko esan digute.

Euskara ahoan Ondarreta ikastetxean

Datorren ekainaren 6an Ondarreta ikastetxeak ikasturte bukaerako jaia ospatuko du, eta izango diren ekitaldien artean helduentzako Mintzodromoa antolatzea pentsatu du Guraso taldeak. Mintzodromoaren helburua euskaldunei edota euskara ikasten ari direnei ordu erdi batez hitz egiteko aukera eskaintzea da. Talde txikitik, eta kafe baten bueltan, ikastetxe nahiz herriaren inguruko gaiez solasteko, iritziak elkartrukatzeko, proposamenak azaltzeko...

Mintzodromoa eguerdian burutuko da Ondarretako jolastokian, eta Ondarreta ikastetxe-ko gurasoek, ikastetxearekin harremana dutenek edo izan dutenek, nahiz bestelako andoaindarrek ere parte har dezakete. Ikuspegi eta iritzi ezberdinetako jendea biltzea baita guraso talde honen asmoa. Baldintza bakarra tarte horretan euskaraz aritzea da, ondo ala gaizki, baina euskaraz.

Parte hartu nahi duenak aldeztatik izena eman dezake 606 937 223 telefono zenbakira deituta (Ines).

Igeriketa taldearen deialdia



Benjamin eta alebin mailakoek ekainaren 13an amaituko dute denboraldia, "XXVI Lasarte Saria"n. Infantil, junior eta nagusiek ere udako txapelketa nagusiaren ondoren amaituko dute denboraldia.

Buruntzaldea IKT taldeak 2015-2016. ikasturterako dagoeneko izen-ematea zabaldu du, "zure haurrak igeriketa taldeko partaide izan nahi badu, oraintxe du aukera! Izen-ematea 2015ko uztailearen 26ra arte zabalik egongo da". Izena web orrian egin eman behar da, "Izen Emateak" atalean "Andoain" sakatuta. Denboraldia irailaren 14ko astean abiatuko da.

buruntzaldeaikt.blogspot.com



KIROL ALBISTEAK

Andoain Berria txapelketako final aurrekoetan

Gaztekek koska bat aurrea egin du Berria txapelketan, final aurrekoetara sailkatuz. Gaztekek uste baino errazago gainditu zuen Gasteizko Txukun Lakua Andoainen bertan, aurreko igande arratsaldean. Bere historian bigarren, Gazteleku lau onenen artean dago.

GAZTELEKU 22-9 TXUKUN LAKUA Osa-Aizpitarte

Uribe-Alvarez de Euslate

KADETEAK. Emaizak berak dioten moduan, askoz gehiago izan zen Gaztelekuko bikotea. Ohar-tzerako, 9-1 aurreratu ziren Osa eta Aizpitarte. Atzelariak izugarri astindu zuen pilota eta, horrez gain, baztertu egin zuen. Eulate nahi eta ezin aritu zen, eta Uriberi begira egotea tokatu zitzaion. Aizpitartek partida bikaina jokatu, Osak aski izan zuen txukun jokatzeko puntu eskuratzeko.

GAZTELEKU 22-10 TXUKUN LAKUA Oiarbide-Usandizaga

Lopez de Calle-Puyo

GAZTEAK. Lehen puntua Gaztelekuk lortu ondoren, gasteiz-tarrak derrigortuta zeuden bigarren partida irabaztera. Garai-penetik urrun geratu ziren, ordea. Partidak hasiera gogorra izan zuen, orekatua, baina tanto guztiak gipuzkoarren aldera erori ziren. Oiarbide serio aritu zen eta Usandizagak ez zuen pilota bakar bat ere galdu.

GAZTELEKU 22-13 TXUKUN LAKUA Eskudero-Erasun

Mendinueta-Resano

NAGUSIAK. Presiorik gabe atera ziren lau pilotariak. Gaztelekuko bikoteak askoz hasiera hobea eman zion partidari. Erasun nagusi izan zen pilotatzean, eta Eskudero aurreko lerroetan ez zuen tanto bakar bat ere barkatu.

Denboraldia amaitu da Ganbara saski taldearentzat

Azken jardunaldia

Maiatzak 30-31

Ganbara Kadeteak 52
Inter 46

Easo 40
Ganbara Infantilak 29

Bi partida horiekin Andoaingo saskibaloiko hiru taldeek amaiera eman diote denboraldiari. Taldeak irailaren 2an ekingo dio denboraldi berria, 18:00etatik aurrera Allurralde kiroldegian.

Aho zapore oneko amaiera Leizaran taldearentzat



Leizaran Eskubaloiko senior gizonen Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak Gipuzkoako Kopa irabazi du.

Larunbatean Bergaran azken partida irabazi ondoren, Leizaran Eskubaloiko senior gizonen Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak Gipuzkoako Kopa irabazi zuen. Jokaturako zazpi partidatan bi berdinketa eta bost garaipen eskuratu ditu taldeak. Berdinketak Urnieta eta Legazpiren aurka izan ziren. Garaipenak, berriz, Leizarango B taldea, Ordizia, Urola, Egia eta Bergararen aurka. Larunbateko azken partidaren lehen minututik jarri ziren aurretik markagailuan, partida nagusitasun osoz irabaziz. Atsedendirako 11-19 ziren aurretik mar-

kagailuan, eta amaieran 25-36koa izan zen emaitza.

OSPAKIZUNA AFARI BATEKIN

Larunbat honetan, ekainak 6, urtero moduan klubaren eguna ospatuko dute. Arratsaldean zehar Allurralden talde guztietako jokalarik eta gurasoen arteko eskubaloiko partidak egingo dituzte, eta ondoren guztiek denboraldi amaierako afaria egingo dute Oianumen. 250 pertsona elkartuko dira.

DEIALDIA DATORREN DENBORALDIARI BEGIRA

Bide batez, Leizaran Eskuba-

“Kluba asko hazida azken urteetan, eta edozein laguntza esku zabal hartuko dugu”

loiko zuzendaritza datorren denboraldia antolatzen ari da: “Entrenatzaile moduan edo beste edozein lanetan laguntzeko prest dagoen edonori klubarekin harremanetan jartzeko eskatzen diogu. Kluba asko hazida azken urteetan, aurtun 193 jokalarik izan dituzte, eta edozein laguntza esku zabal hartuko dugu”.

Gipuzkoako txapeldunak

Andoaingo Txirrindulari Eskolako jubenil mailako txirrindulariek denboraldian urrats bat eman dute aurrera Gipuzkoako taldekako erlojuaren aurka proba irabaziz.

Garaipen argia eskuratu zuen talde sendoen aurka, minututik gora ateraz txapeldunordeari. Taldeka andoaindarrak sendotasun handia erakutsi dute. Zorionak!

Maiatzak 31, igandea. Zumaia. Sailkapena:

1. Andoaingo 39:41
2. Atracciones Sanz 40:51
3. Goierri Ampo 41:09



ITURZAETA-2015					
LARUNBATA, EKAINAK, 6					
FINAL LAURDENAK ETA FINALERDIAK					
A	ARBITI BILZOR	10:00	GAZTE BAKERO		
B	YOCORRELLA	16:30	BEZARAKI IZURIZ		
C	ARBITI ANDOIN	17:00	GAZTE JARONIBARRIN		
D	LOKATI	17:30	BOREKO TIBERRIARAY		
	LARREIN AMARA	18:00	GAZTE ANARA		
	APARRIA GAZTE	18:30	KAZTE OIATE		
C TALDEKO IRABAZITZA 19:30 D TALDEKO IRABAZITZA					
A TALDEKO IRABAZITZA 19:00 B TALDEKO IRABAZITZA					
IGANDEA, EKAINAK, 7 FINALA					
18:30 NESKAK					
19:00 MUTILAK					



KIROL ALBISTEAK

Aritzagaren agurra

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Poliklinikan eta Osakidetzan lan egiteko aukerak sortzen zaizkit, eta horietan lan orduak aldatu egiten dira; txandaka ibili beharra daukat, aste-buruak barne. Gauzak horrela, ezingo nuke entrenamendu eta partiden dinamika seriotasunez jarraitu.

Lan merkatua dagoen bezala dago, eta ezin diet ezetz esan irekitzen zaizkidan ateei. Emakumeen eskubaloitik ezin da bizimodua atera eta, etorkizunean pentsatu beharra dago. Eskubaloiarekin jarrai nezakeen 34-35 urte bete arte, baina asko zailduko litzaidake hortik aurrera lan merkatuan sartzea...

Gogorra zara zeure buruarekin, kantxa barruan nahiz kanpoan...

N.A.: Ez da erraza nor bere burua definitzea, baina esango nuke jokalaritza tekniko bikaina baino, dena ematen saiatzen den horietakoa izan naitzela. Txiki-txikitatik argi eduki dut zer nahi nuen, eta horretarako sakrifizio pertsonalak egin behar nituela. Etxean ere gurasoek ondo zuzendu naute la esango nuke bide horretatik. Gainera, izaeraz, beti egoeren alderik baikorrena azpimarratzen saiatu izan naiz.

Ez al duzu pentsatu exijentzia maila txikiagoa eskatuko dizun talde batean jarraitzea eskubaloian?

N.A.: Eskaini didate halako aukera, baina guztiz uzten dut eskubaloia. Etorkizun hurbilean, behintzat, lanean modu finko batean hasi nahiko nuke eta horrez gain, oposaketak datozkit.

Elitean jokatu duzu, talderik onenean, baina hala ere hortik ezin dela bizi diozu...

N.A.: Inolaz ere ez! Halakoxekoa da emakumeen kirola! Ikusi besterik ez dago gizonen aldean, komunikabideetan eta zenbat agertzen garen, gizartean zenbateko oihartzuna duten gure garaipenek...

Frantziako egoera daukagu gertu, baldintzak alderatzeko, eta esaterako, hango lehen mailako ligara joatea erabaki dute Espainiako selekzioan jotzen duten Patri Elortza eta Maria Nuñez taldekideek. Es-



Nagore Aritzaga.

kubaloitik bizimodua atera nahi dutelako erabaki hori hartu dute.

Ligako txapeldun hirugarren aldiz Bera Berarekin. Zenbat andoaindarrek jakin dute balentria hori? Zenbatek zoriondu zaituzte?

N.A.: Zenbatek dakiten, hori ez da erraza asmatzen. Baina zoriondu, etxekoek, lagunak eta ezagunen batek kalean, ez askok.

Andoainen ez dago palmares hori lortu duen kirolaririk. Esaterako taberna edo elkarteren batek eskatu al dizute sinadura daraman zure kamisetaren bat marko batean zintzilikatzeko, futbolariekin edo pilotarekin gertatu ohi den antzera?

N.A.: Ez. Baten bat etorriko balitz, pozik egingo nioke hurrera, baina ez zait halakorik gertatu oraingoz.

Eskubaloian egindako ibilbidean, une gaziak eta gozoak zeintzuk izan dira?

N.A.: Gazien artean, argi daukat: Zortzi hilabete geldirik egon nintzenekoa, sorbaldatik operazioa jasan eta gero. Bestetik, kirolari guztiek bezala nik ere jokatzeko gogoko, eta agian pena daukat minutu gehiago ez jokatu izana...

Gozoen artean, noski, bost urte horietan jokalarien artean eduki dugun giro jatorra aipatu nuke, zalantzarik gabe; partida aurretik edo ondoren gustura asko ibili izan gara elkarrekin, kafea hartzeko, afaltzera joateko... Lehengo egunean eduki genuen despedida, esaterako, erabat hunkigarria

PALMARESA PAREGABEA

- 4 urte Leizaranen, 7 urte Bera Beran.
- 3 aldiz Espainiako ligako txapeldun.
- 2 aldiz Erreginaren kopako txapeldun.
- 3 aldiz Superkopako txapeldun.
- Champions Leaguen jokaturakoa, denboraldi batean.

izan zen. Are gehiago, lortutako titulu handien gaitetik jarriko nuke elkarrekin bizi izandakoa.

Aldi berean, ez nituzke ahaztu nahi Leizaran taldean igarotako urteak. Horiek ere nirekin gordeko ditut betirako. Talde horrek emandako guztiari esker iritsi naiz iritsi naitzen tokira.

Etorkizunean kirolarekin lotuta jarraituko al duzu?

N.A.: Bera Berako partidatara joateko asmoa daukat. Badakit urduri jarriko naizela, kantxan baino urduriago... Bera Beran tokatu izan zait hiru-lau egun kirolik egin gabe egon beharra, eta ez naiz izan erraz eramateko egoera hori! Adrenalina askatzea eskatzen dit gorpuztak.

Etorkizunean, argi daukat orain arte galerazita nituen jarduerak praktikatu ditudala: arriskuko kirolak (rafting eta abar), eskia... Behobiako lasterketarako izena emana daukat mutil lagunarekin.

Kirolaz gain, bazterrean utzitako jarduera gehiagori helduko diozu, noski...

N.A.: Makina bat bai! Lagun giroan ibiltzea, hondartzara joan eta patxadan etzanda egotea... Parrandaren bat edo beste egiteko ere prest nago.

Iturria garaile Nafarroan



Mikel Iturria.

Urnietarrak garaipen berria lortu du eta bide batez Euskadi fundazioko ibilbidea boro-biltzen jarraitzen du.

Lizarra eta Iruñea arteko lasterketa 147 kilometrokoa zen eta tartean 5 mendate igo behar zituzten. Helmugatik 50 kilometrorra Iturriak ihes egin zuen eta Arcasekin batera helmugaraino iritsi ziren. Etapa Arcasentzat izan zen, itzulia Iturrirentzat.

Sailkapen orokorra:

1. Mikel Iturria Euskadi
2. Jorge Arcas Lizarte
3. Fernando Barcelo Contador

Play off-aren bidean



Jon Gaztañaga.

Ponferradina taldea Espainiako ligako bigarren mailako gainaldean dago eta denboraldiko azken partidara igoerako play off-ean sartzeko aukerakin iritsi da. Azken partida 0-1 irabazi zuten maila galtzar dagoen Racing de Santander taldearen aurka. Hasieratik jokatu zuen Gaztañagak eta maila txukuna eskaini zuen.

Lehen mailarako bidean, igande honetan arratsaldeko 18:00etan Alcorcon taldea jasoko dute etxean.

Eskubaloian txapeldunak



Guria jubenil mailako mutilak Foru Aldundiko txapelketako irabazleak.


Denboraldi amaieran Urnietako eskubaloiko taldeak albiste onak eskaintzen ari di-

ra. Jubenilek eta kadeteek aurkari berbera izan zuten: Eibar taldea.



Kamox kadete mailako neskek Foru Aldundiko txapelketako irabazleak.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

EKAINAREN 4TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

- Andoain, Bastero**
- "La profesora de Historia". Larunbata, 6: 19:30, 22:00. Igandea, 7: 19:30.
- Astelehena, 8: 19:30, 22:00.
- Datorren asteburuan: "Nuestro ultimo verano en Escocia".

Urnietan, Sarobe

- "Pride". Ekainak 26 eta 28.

Odol-emaileak

- Andoain**
- 18:30 20:30. Anbulatorioa. Ekainak 9, asteartea.

Ikastaroa

- Andoain**
- "Euskara Plus", Banaiz Baga eta Udalaren eskutik. Euskaraz komunikatzen ikastea, lan munduan oinarritzeko mailan aritu ahal izateko: Ostalaritza-merkatari-za, pertsonen zaintza, industria etab. Izen-ematea: 943 304 343 | 943 304 221.

Azoka

- Andoain**
- Bigarren eskuko azokaren edizio berria. Izena emateko epea zabalik. Uztailek 4, larunbata.

Musika

- Urnietan, Sarobe**
- Lourdes Iriondo musika eskolako ikasturte amaierako emanaldiak.
- Tailerra 1, tailerra 3, pianoa, tronpeta. 17:30 Dohainik.
- Pianoa, perkusioa. 19:00 Dohainik. Ekainak 4, osteguna
- Musikabiko ikasleak. 20:00 Dohainik. Ekainak 5, ostirala.

Andoain, Bastero

- Udal musika eskolako ikasturte amaierako emanaldiak.
- Musika Eskolako konboen kontzertuak. 18:00. Ekainak 4, osteguna. Gitarra eta kantua. 18:00. Ekainak 5, ostirala.
- Kontzertua: Erramun Martikorena, Mikel Markez, Aire ahizpak. 21:30 Bastero. Ekainak 5, ostirala.
- Kontzertu didaktikoa, Soinuak taldearen eskutik. Andoain-Aduna bidean dago Asvinenea gunea. 17:00. 3 euro. Ekainak 6, larunbata
- **Andoaingo Rock Jaialdia:** Flamin' Groovies, The Muffs, Johnny Casino & The Secrets, Lie Detectors, Juarez. 18:00 Nafarroa plaza. Ekainak 13, larunbata.

Gazte festak

- Urnietan**
- **Paella jatea** San Juan plazan, Poxta Zahar taldearen eskutik. 14:00 San Juan plazan. Ekainak 6, larunbata.

Hitzaldia

- Andoain, Urigain**
- **Stop Desahucios Andoain** taldearen eskutik. Etxebizitza babestua, Eusko Jaurlaritza eta etxebizitzaren legea Euskadin. 19:00 Urigain. Ekainak 4, osteguna.


Entseguak

- Andoain**
- **Axeri Dantzako entseguak:** Ondarreta ikastetxeko jo-lastokian, 20:00etatik aurrera. Datozen entseguak: Ekainak 10, asteazkena. Ekainak 12, ostirala.

Argazkia

- Andoain, Bastero**
- Tailerra: Kolorearen kudeaketa, Hugo Rodriguezen eskutik. 10:00-14:00 / 16:00-20:00. Ekainak 6, 7.
- Jaialdiaren amaiera ekitaldia. 19:00 Ekainak 12, ostirala.

ZORION AGURRAK



- ZORIONAK**
Nora Mendizabal Ezeizak 12 urte beteko ditu hilaren 8an. Gure etxeko printzesitari, aitona Esteban eta amona Mirenen partetik. **ANDOAIN**
- ZORIONAK**
Ekainaren 2an **Joxe Mari Ollakari** 5ean urtebetetxo bat bete du. Urte askoan!!! Bazkari batekin ospatuko dugu eguna. **ANDOAIN**
- ZORIONAK**
Ekainaren 5ean urtebetetxo bat bete du **Aiur Garcia Alvarezek**. Muxu potolo bat gurasota familia guztien partetik. **ANDOAIN URNIETA**
- ZORIONAK**
Ixiar Alkainek ekainaren 2an 8 urte bete zituen. Zorionak gure etxeko sorginari. Muxu potoloak. **ANDOAIN URNIETA**
- ZORIONAK**
Zorion Eider! Bederatzi mila zorion eta muxu bero-bero bat, Eider, etxeko guztien partetik. **URNIETA**

ZORION AGURRAK AIURRIN
Dohainik da:
• diseinua@aiurri.com

• Whatsapp bidez:
Oso erraza da:
619 163 537.

Kirol Astea Andoain

- Ekainak 4, osteguna**
19:30 Kirol merezimenduaren saria pilota eskolako Andoni Alvarez, Basteron. Ekitaldia irekia da.
- Ekainak 5, ostirala**
17:00 "Zer dakizu kirolaz?" lehiaketaren sari banaketa ekitaldia Allurralden.
- Ekainak 6, larunbata**
17:30 Judoa familian egiteko aukera Allurralden.
16:00 Orientazio froga Goikoplazan.
18:30 Zumba kalean Goikoplazan.
- Ekainak 7, igandea**
11:00 Areto futboleko txapelketa finalak Allurralden.

Areto futbola, finalak

- Denboraldi osoan ligaska jokatu eta gero, aurreko bi asteburuetan final aurrekoen joaneko eta itzulerako partidak jokatu dira. Finala igandean.
- Finalak**
Aure Maiton-Txalaka.
10:00 Allurralde. Igandea, 7. 3-4. postuak.
Academia GF - Hogar Andoain
11:00 Allurralde. Igandea, 7. B Taldea. Finala.
Keler - C. Extremeño
12:00 Allurralde. Igandea, 7. A Taldea. Finala.
- Finalaurrekoak**
1-0 Ekaitz-Hogar Andoain 2-5
2-2 C. Extremeño-Aure 7-6
7-0 Academia GF-Pausoka 3-0
3-1 Keler-Txalaka 1-1

Daniel UNANUE SAN SEBASTIAN jauna

Antoni Goikoetxea Azurmendiren alarguna
Urnietan hil zen, maiatzaren 27an, 85 urte zituela.



Gogoan ni hartuz gero
izango nuz, bai, Lategin
baratz, soro edo larreetako
lanetan igeratagin.

Zuentzat barieta hurbie zabilduz,
afaria eta festa dira berdira:
bakterrik asko nahastu gabe
lagunarte gozoan bat egin.

Bere sarraskiek biziak eskertzen dituzte egun hauetan nahigabean
gurekin bat egin dutzen gurei zuen doheren aliantzapeko

Urnietan, Igaztegi baserria, 2015, ekainak 2

Eskelak, hileta-oharrak Aiurrin

@ diseinua@aiurri.com
☎ 943 300 732